



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Investigación

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 12koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2023-2024 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituena.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen lehenengo berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2023-2024 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen bigarren berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2023-2024 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen hirugarren berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2023-2024 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Laugarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2023ko ekainaren 20ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Bostgarrena.- 2023ko ekainaren 20ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko abenduaren 12an.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea